

# JUAN SAN MARTIN

## HIRI ZAHARRA MONUMENTU IZENDATZEAZ

Kultur Ministeritzak 1979an izendatu zuen Hondarribiko Hiri zaharra oro har monumentutzat. Baina, ez dakigu zergatik, jaramon guti egin zitzaion. Aurren herriki Eusko Jaurlaritzak izendatu du. Bazen garaia eta ongi iruditzen zait.

Alde zaharraren edukirik baliagarriena, zalantzarik gabe, Santa Maria eliza nagusia dugu. Hori argi utzi ziguten X. de Cardaillac, P. H. De Lalanne, F. López del Vallado, M.A. Arrazola eta beste zenbaitek.

Urtarrilaren 10 eta 14an *El Diario Vasco* egunkarian irakurri dugunez, bertan aipatzen diren zenbait jauregi eta etxeen izenak ez daude era jatorrez. Zalantzarik gabe, historiak eskaintzen dizkigun izen jatorretan oinarritu beharra dute eta ez da horrela gertatu. Asko datoz geroztik eman zaizkiten izenekin eta horrek historiaren aldetik nahaspila sortu besterik ez dute egiten.

Adibidez, Arma Plazako paradorea Carlos V bezala azaltzen zaigu, kontutan izan gabe Carlos V enperadoreak handiagotu egin zuela, zenbait aldakuntza eginaz. Baina oraindik bertan dira lehenago Nafa-

roako Santxo Jakitunak eraiki zituen parteak. Ez ote zen hobe lehenengoaren izena gordetzea? Zalantza duenak ikus eta irakur Serapio Mujikaren "*Relaciones de Fuenterrabía con Navarra en el siglo XII*" (Euskalerrriaren -alde, 1917, VII, 55).

Baita ere aipatzen da casa de Juana la Loca, behin gaua etxe horretan igaro zuelako. Baina ez ote zen hobe Egiluz soilik gordetzea? Zeren bere ate buruan duen armariak hala jartzen bai du.

Historian zehar Valencia eta Etxebeste bezala ezagutu izan den jauregia ere, ezin ulertuzkoa da iruditzen zait zergatik utzi zioten Obispo jartzen. Udalak berak kontutan hartu beharrezkoak ditu izen zahar jatorrak eta ez zuen eman behar baimenik Obispo jartzeko. Baina Casadevanteri Hotel Pampinot izentzat ematea ez zaio egokia; izen hori daraman kale zaharrarekin nahastu besterik egiten ez duenez.

Iriarte, Zuloaga etxea, Alberro, Alzega, Uagon, Butro, Ubilla, Artsu eta abar hor daude, baita berriua izan den Ramery ere, eta egoki litzaiguke etxe horiei iraupenerako beraien izen jatorrarekin iragarkiren bat jartzea, Florentino Portu zenak

**GESTORÍA  
INMOBILIARIA**  
**Pérez Alkain**  
**ADMINISTRACIÓN  
DE FINCAS**  
Matxin de Arzu 14  
**20280 HONDARRIBIA**

Tel. y Fax 943 64 21 57  
e-mail: gespeal@euskalnet.net  
Móvil: 656 75 89 83



*Cocina tradicional  
Carta  
Menu del día  
Raciones y cazuelitas*

C/ San Pedro, 63  
Tel.: 943 64 70 75  
**20280 HONDARRIBIA**

1975ean argitaratu zuen *Fuenterrabía. Notas históricas y curiosidades hasta 1969* liburua 17. orrialdean eman zuen planoari jarraituz.

Portu zenaren liburu horren 149. orrialdean dator Pampinot kaleko argazki bat eta lotsagarria iruditzen zait kale horri egin zaion aldakuntza. Zergatik ez dira mantendu lehengo etxeak alde zahar horrek bere itxura gorde ahal izateko? Nori bururatu zitzaion eta nola onartu ziren ingurune horrekin loturarik ez duten etxe berriak egitea? Zer kostatzen lehengo etxe haiek berrizatzea?.

Badakigu aurrekaldetik atzekaldera etxe luzeak zirela eta horregatik erdi aldeko gela ilunak. Baina, 1979an eman zitzaion Udalari Unzurruntzagak Arrasaten egin zuen aukerapena, atze aurreak zati-tuz eta ondokoarekin bat eginaz barne gelak argiagoak izateko plangintza hura. Ulerkaitz zait asmo hori jaramonik ez egitea.

Manzano Monis zenak eraiki zituen era zaharreko itxuradun etxeetarik batzuk egokiak dira, baina ez guztiak. Horiegatik alde zaharrak bere oreka galtzen du. Geroztik ere egin da holako ezbeharrik, eta azkenengoa San Nikolas atearen ondoan eraikitzen ari diren etxe berria da, zeinek itzaltzen duen ate horren bere itxura jatorra eta nortasuna.

Era hortako bihurrikeririk gerta ezta din eskatu zitzaion Udalari, 1979an, kontseilua emango zituen aholkulari batzorde bat izendatzea, bertako historiaz eta arteaz zerbait zekiten pertsonen osaturik. Baina, tamalgarria bada ere, ez zen aurrera eramán.

Oroi holako jokaeragatik hiri zaharrak monumentuzaren aldetik galera handia dakarrela eta aldi berean turismorik ez indartzea.

JUAN SAN MARTIN

## INORK PROPOSATUKO EZ DIZKIZUN LIBURUAK



**Topa dezagun!**

Alde hemendik makal hori

**Sexu aldaketa bati buruz, zer deritzozu?**

Nahiago nuke mutila banintz



erein argitakua

**Hau da martxa!**

Utzi droga hori kopon!



**«15 kilo gutxiagorekin primeran egongo naiz»**

(zuk uste, anorexika halakoa?)  
Joan-etorriko billetea

**Bizitza ez delako arantzarik gabeko arrosa**